



# GRADU AMAIERAKO LANAREN GIDA

Haur Hezkuntzako Gradua  
Lehen Hezkuntzako Gradua  
Gizarte Hezkuntzako Gradua

**BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA**

(2021eko URRIAN EGUNERATUA)

## AURKIBIDE OROKORRA

SARRERA .....	2
1. Zer da Gradu Amaierako Lana? .....	2
2. Noiz egin daiteke GRALa? .....	4
3. Zeintzuk dira GRALaren prestakuntza jarduerak? .....	4
4. Zer ezaugarri ditu oroitidazkiak? .....	5
5. Zein formatu eta luzera izan behar du GRALak? .....	6
6. Zertan datza ahozko defentsa? .....	7
7. Nola ebaluatuko da GRALa? .....	7
8. Jabetza intelektual .....	9
9. Etika profesionala .....	9
10. Zer baldintza administratibo bete behar dira? .....	10
1. Eranskina.GRALaren azalaren eredia.....	14
2. Eranskina. Zuzendariaren txostena.....	15
3. Eranskina. Zuzendarientzako ebaluazio irizpideak .....	16
4. Eranskina. Epaimahaikideentzako ebaluazio irizpideak .....	17

## SARRERA

Gradu Amaierako Lana graduko azken mailako irakasgaia da, 12 ECTS kreditukoa. Ikasketa Planeko gainontzeko irakasgaietatik bestelakoa da; izan ere ikasleak berak egin beharko du, banaka, eta lan oriinala izango da. GRALa garatzeko, ikasleak zuzendari baten laguntza izango du, bideratzaile gisa arituko dena, kontzeptu, metodologia eta analisiaren inguruko irizpideak eta baliabideak emanez. GRALa ez da inolaz ere baliozkotuko.

Dokumentu honek GRALa definitu, egin, gainbegiratu, defendatu, ebaluatu, kalifikatu eta tramitatzeko irizpideak jasotzen ditu, indarrean diren UPV/EHUko gainerako arautegietan zehaztutakoaren arabera.

### 1. Zer da Gradu Amaierako Lana?

GRALa ikasle bakoitzak, banaka, gizarte eta heziketa arloko proposamen berritzaile bat edo izaera kontzeptual edo enpirikoko lan bat egitean datza, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean (Ikus GRAL\_UPV-EHU Arautegia, 3. art.). Lan honek prestakuntza prozesuan ikasi dituen gaitasunak bildu eta garatzen ditu, norberaren interesak, ikasitako guztia eta bizitako esperientziak baliatuta.

GRALa aukeratutako gaiari buruzko lan sakon bat egitean datza edo diziplina arteko proposamen berritzaile bat egin eta hura lan arloan ezartzeko estrategiak diseinatzean. Nolanahi ere, ikasleak helburu hauek bete beharko ditu: a) Graduko eremu jakin batean sakontzeko gai garrantzitsuak eta interesekoak identifikatu; b) planteatzen dituen galderari erantzuteko zer motatako GRALa egingo duen erabaki; c) informazioa bildu, aztertu eta modu kritikoan interpretatu; d) oroitidazkia zorrotasun akademikoan egin; eta e) lana ahoz defendatu.

GRALean graduaren prestakuntzan landutako arlo bat edo batzuk aipatu ahal izango dira eta edukiak titulazioari lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari begira zehaztuko dira: datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatu; gizariteari, zientziari, teknologiarari edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzi

kritikoak, logikoak eta sortzaileak eman. Halaber, ikasleak GRALarekin lotutako gaitasun zehatz hauek adierazi beharko ditu:

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUAK LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAK	GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA
<p>1. <i>Lortutako ezagutza teorikoak eta praktikoak erabili, teoria eta praktika egungo hezkuntza errealitatearekin lotu eta ezagutza berriak sortu irakaskuntzarekin eta ikaskuntzarekin lotutako arazoei aurre egiteko.</i></p> <p>2. <i>Informazio garrantzitsua aukeratu, aztertu eta sintetizatu, eskolatzeko prozesuak hobetuko dituzten proiektuak diseinatze aldera.</i></p> <p>3. <i>Autonomia adierazi heziketa arloko gogoeta, argudio, iritzi akademiko eta profesionaletan, baita erabakiak hartu eta arazoak konpontzerakoan, banaka zein talde barruan.</i></p> <p>4. <i>Komunikazio gaitasuna adierazi, ahoz zein idatziz, EAEko bi hizkuntza ofizialetan.</i></p>	<p>1. <i>Gizartearen eta hezkuntzaren errealitatea aztertu eta interpretatu, eta era berean banakoen, erakundearen eta lanbidearen bestelako arloen beharrak identifikatu, gizarte eta hezkuntza mailako ekintzak oinarritzeko.</i></p> <p>2. <i>Jarduteko proiektu berritzaileak diseinatu hainbat esparrutan eta Gizarte Hezkuntzaren arloko gai garrantzitsuetan aplikatu, koordinatu, balioetsi eta sakontzeko erabili.</i></p> <p>3. <i>Norberak bere GRALaren inguruan hausnartu, argudiatu eta defendatu.</i></p> <p>4. <i>Ikuspegi, metodologia eta iherkuntza, ekintza eta hobekuntza teknika desberdinak erabili Gizarte Hezkuntzaren esparruetan.</i></p>

Lau GRAL mota aurkeztu litezke: ikerketa/arakatze sistematikoa, esku-hartzea, sormena/berrikuntza edo ekintzailtza.

GRALaren gaia hautatzeko, ikasle bakoitzak ondoko aukeren artean egin behar du hautaketa:

- 1) Aldez aurretik zuzendariarekin adostuta dagoen gaia proposatu GAUREn, ezarritako epean eta eran (Jarraibideak eta egutegia ikusi). Proposamena behar bezala arrazoitu beharko da teoria eta praktikaren ikuspegitik eta egokia izango da titulazioaren eremu zientifikorako.
- 2) Fakultateko eskaintzatik, graduan dozentzia duten sailek proposatutako gaietako bat aukeratu.

## 2. Noiz egin daiteke GRALa?

GRALa Graduako laugarren mailako irakasgai bat da.

Ikasleari GRALa prestatzeko gai bat eta zuzendari bat esleitu ahal izateko, Graduako 168 kreditu gaindituta eduki behar ditu gutxienez. Gainera, ikasleak matrikulatuta izan beharko ditu ikasketa plana amaitzeko eskatzen diren gai guztiak, GRALa izan ezik.

Gai eta zuzendarien esleipen sistema egokia antolatzeko eta artikulatzeko xedez, GRALa egin aurreko ikasturtearen bigarren seihilekoan ikasleek gaiak proposatzeko epealdia irekiko da. Ondoren, sailek landutako gaien eskaintza jarriko da jendaurrean. Eskaintza horretan aukera dezakete beren proposamenik egin ez duten ikasleek, edo aurkeztuta ere, ez bada onartu.

Dena den, ikasleak ezin izango du GRALa matrikulatu, ezta haren defentsa egin ere, ikasketa planaren gainerako gai guztiak gainditu arte.

## 3. Zeintzuk dira GRALaren prestakuntza jarduerak?

GRALa garatzeko ikasleek prestakuntza prozesu autonomoa egin beharko dute, eta horretarako prestakuntza jarduera presentzial eta ez presentzial hauek egin beharko dituzte (12 ECTS – 300 ordu):

- Zuzendariarekin tutoretzak egin, GRALa diseinatzeko, garatzeko eta defendatzeko.
- GRALaren diseinu eta metodologian laguntzeko mintegietan parte hartu.

- GRALen emaitzak denen artean eztabaidatzeko mintegietan parte hartu.
- Lana diseinatu, kontzeptu esparrua landu, datuak biltzeko tresnak aukeratu, informazioa aztertu eta emaitzak interpretatu.
- Lanaren amaierako oroitidazkia eta norberaren lanaren inguruko balorazioa egin.
- Ahozko defentsa prestatu eta egin.

Zuzendariarekin sei bilera egingo dituzte gutxienez.

### **1.Tutoretza: kontaktu saioa (urria).**

Elkar ezagutzea eta erantzukidetzea da asmoa. Saio bakoitzaren aurretik, saioan zehar eta ondoren egiteko jarraibideak daudenez, saio honetan horrela zehazten da.

### **2. Tutoretza: Lehen eduki-saioa (azaroa).**

GRALari edukia emateko hasiera-saioa. Asmoa gaia eta bere helburuak mugatzea da.

### **3.Tutoretza: Bigarren eduki-saioa (urtarrila).**

Saio honen asmoa GRALaren diseinua eta planifikazioa egitea da. Egitura orokorra (koherentzia) eman nahi da.

### **4. Tutoretza: Hirugarren eduki-saioa (martxo).**

GRALaren garapen saio honetan, metodologia eta eremu-ikerketak azpimarratuko dira.

### **5.Tutoretza: Laugarren eduki-saioa (apirila).**

Balorazio eta interpretazio saioa da, eta bertan GRALaren zirriborroa landuko da.

### **6. Tutoretza: Itxiera saioa (maiatza).**

Defentsa eta berarekin lotutako tramite administratibo eta formalak landuko dira.

## **4. Zer ezaugarri ditu oroitidazkiak?**

Oroitidazkiak egindako prozesua argi eta garbi eta era antolatuan adierazi behar du (Ikus Oinarritzko GRAL txantiloia eta Modalitate ezberdinetarako gidoiak). Lanak gutxienez honako oinarritzko elementu hauek edukitzea gomendatzen da:

1. Azala
2. Aurkibide orokorra
3. Abstracta/Laburpena
4. Sarrera
5. Esparru teoriko eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera
6. Metodologia

7. Lanaren garapena
  8. Emaitzak eta ondorioak
  9. Erreferentzia bibliografikoak
- Eranskinak

GRALa hizkuntza berean garatu eta defendatuko da. Nolanahi ere, lanaren laburpen gisa, Abstract bat ere egingo da gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez edo frantsesez (gehienez ere 100 hitz), eta bertan, lana indexatze aldera, gehienez ere bost deskribatzaile adieraziko dira. Termino horiek hezkuntzan espezializatutako thesaurus batetik hartuko dira.

## 5. Zein formatu eta luzera izan behar du GRALak?

GRALa oroitidazkiaren kopia digitala, pdf formatuan, ADDI artxibo digitalean jarriko da, ikasturte bakoitzean ezarritako modu eta epearen barruan. Hala ere, lana beste bide ofizialen bidez entregatzea eskatu ahal izango da. Formatu alderdi hauek kontuan hartuko dira:

- Luzera: 20-25 orrialde artean (azala zenbatu gabe).
- Marjinak: goikoak eta behekoak 2,5 cm eta alboetakoak 3 cm.
- Letra mota: Times New Roman, Arial edo Calibri, 12 tamainakoa.
- Lerroarte: 1,5 puntu, paragrafo justifikatuekin.
- 1. Eranskinen adierazitako azalaren eredia kontuan hartu behar da.
- Aurkibide orokorra bi marjinen erdian lerrotatuko da, testu nagusiaren aurretik eta azalaren ondoren. Tituluak eta azpтитuluak ezkerrean jarriko dira eta titulu bakoitzari dagokion orrialdearen zenbakia eskuinean, puntuen bidez bereizita.
- Orrialde zenbakia: goian eta eskuinetara, testu nagusiaren bigarren orrialdetik aurrera.
- Testuaren barruko aipuak: lau lerrokoa baino gutxiagokoa bada, testuaren barruan joango da, kakotx artean. Lau lerrotik gorakoa bada, lerroarte bakunaz, testu jarraituaz kanpoko beste paragrafo batean, eta tartean lau hutsuneko koska utziz. Ez da kakotxik jarriko eta letra tamainak 11 izan beharko du.

- Oin oharrak: orri oinean jarriko dira, zenbaki txikienetik handienera ordenatuta, dokumentu osoaren letra mota berarekin (10 tamaina), 1,0 puntuko lerroartearekin eta justifikatuta.
- Tituluak eta azpituduluak, zenbaki txikienetik handienera ordenatuta eta letra lodiz. Izenburu guztien aurretik hiru tarte utziko dira. Izenburuaren ondoren dagokion testu jarraitua idatzi aurretik hiru lerro bakun utziko dira.
- Orriaren tamaina: DIN A4.
- Taulak, grafikoak edo irudiak: zenbaki txikienetik handienera ordenatuta eta dagokion epigrafearekin.
- Bibliografia: aipuak eta erreferentziak APA arauen arabera egingo dira (7. ed. 2019).

## 6. Zertan datza ahozko defentsak?

GRALa ahoz defendatuko da, jendaurrean eta ikastegiko hiru irakaslek osatutako epaimahai baten aurrean. Irakasle kategoria eta antzintasun handiena duen hiru irakasle horien artekoa izango da epaimahaiburu eta kategoria eta antzintasun txikiena duena idazkaria.

GRAL baten zuzendariak ezingo du parte hartu bere ikaslearen lana ebaluatzeaz arduratuko den epaimahaian.

Lanaren defentsak bi zati izango ditu: lehenengoan, lanean jorratutako alderdi guztiak aurkeztuko ditu ahoz eta gehienez ere 15 minutuz; bigarrean, epaimahaikideen galderei erantzun beharko die, eta horretarako 10 minutu izango ditu gehienez ere. Dena dela, lana defendatzeko bestelako formatu berritzaileagoak ere proposatu ahal izango dira.

Ikasleek hizkuntzan berean egin eta defendatuko dute GRALa. Edonola ere, GRALa Autonomia Erkidegoko bi hizkuntzetako edozeinetan egin eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.

## 7. Nola ebaluatuko da GRALa?

Kalifikazioa hiru irizpideren arabera egingo da: ikaslearen lan prozesu osoa, GRALaren idatzizko aurkezpena eta ahozko defentsak. Halaber, kontuan hartuko da ikasleak



egindako lanaren kalitatea (gaiaren sakontasuna, gizarte eta hezkuntza esparruan duen adierazgarritasuna, originaltasuna, etab.) eta epaimahaikideek egindako galderei zentzuz eta galderari egokitzuz erantzun duen.

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Gizarte Hezkuntza graduetan, GRALaren kalifikazio osoaren %50a zuzendariak emango du eta ahozko defentsarako izendatutako epaimahaikideen kalifikazioak beste %50a.

Kalifikazioa 0tik 10era bitartekoa izango da, hamartar bakarrarekin, eta horri dagokion kalifikazio kuantitatiboa ere adieraziko da:

- Ez aurkeztua (EA)
- 0 - 4,9: Gutxiegi (G)
- 5,0 - 6,9: Nahikoa (N)
- 7,0 - 8,9: Oso ongi(OO)
- 9,0 - 10: Bikain (B)

Ohorezko matrikula aipamena egin ahal izango zaie 9,0 kalifikazioa edo altuagoa lortu duten ikasleei. Aipamen hori gehienez ere ikasturte bakoitzean irakasgai honetan matrikulatutako ikasleen ehuneko bosti eman ahal izango zaie. Epaimahaikideek hala proposatuz gero, Antolakuntza Akademikorako Batzordeak emango du matrikula (GRALaren Arautegia, 8.3. art.).

GRALen azken kalifikazioen berrikuspenak eta erreklamazioak Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraiki egingo dira. Ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du eta, ondoren, ikastegiko Erreklamazio Batzordeak emango du ebazpena; ebazpen horren kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio unibertsitateko errektoreari.

Oro har, ebaluazioa honako irizpide hauen arabera egingo da (Ikusi, 3. eta 4. eranskinetako ebaluaziorako irizpideak).

- Graduan landutako gaitasunak jasotzea.
- Aurkezpen eta egitura txukuna eta koherentea.
- Edukien adierazgarritasuna eta egokitasuna.
- Kode zientifiko, etiko eta deontologikoak errespetatzea.
- Originaltasuna eta izaera berritzailea.
- Gogoeta egiteko eta arrazoitzeko gaitasuna.

- Hizkuntza akademikoaren erabilera eta idatzizko zein ahozko aurkezpenaren kalitatea.
- Bibliografia bereziaren erabilera.

## 8. Jabetza intelektual

GRALa Jabetza Intelektualari buruzko legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duen ikaslea izango da.

Inoren pentsamendua behar bezala aipatzeak norberaren pentsamendutik bereizten laguntzen du eta egindako irakurketen kalitatearen adierazgarri ez ezik, pentsamenduaren sistematizazioaren ezaugarri ere bada. Era berean, ikasleak egindako analisi prozesuen eta sintesiaren kalitatea adierazten du.

Plagioari dagokionez, ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak egin balitz bezala. Ikasleak zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa egin dela susmatzen bada UPV/EHUko Etika Akademikoari buruzko [protokoloa](#) beteko da. Protokolo honetan agertzen den bezala, GRALaren aurkezpenean plagiorik antzemanaz gero, epaimahaiak suspentso kalifikazioa (0,0) jarriko dio lanari.

## 9. Etika profesionala

Etika profesionalari dagokionez, edozein modalitateko GrALa planteatu arren, ondorengo printzipioak bereziki aintzat hartuko dira:

- Giza Eskubideak errespetatzeko printzipioa. Oinarrizko eskubideen esparruan eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean enuntziatutako eskubideen arabera jardungo da.
- Ekintza subjektuak errespetatzeko printzipioa. Lanaren objektu direnen interesak lehenetsiko dira, haien autonomia eta askatasuna errespetatuz.
- Informazio arduratsuen printzipioa. Pertsonen inguruan zuzenean edo zeharka eskuratutako informazioei dagokienez, konfidentzialtasuna errespetatuko da. Behar izanez gero, informazioa partekatu behar denean, pertsona, talde edo komunitatearen onerako egingo da beti, eta oinarri

etikoetan eta legezko arauetan oinarriturik, interesdunen ezagutza bermatuko delarik.

- Ikasleak, hizkera inklusiboa eta errespetuzkoa erabiliko du (idatzia edota bisuala) lanean ordezkaturako kolektiboekiko (esku hartzeko proiektu baten xede den kolektiboa, ikerketa-prozesu baten informatzaileak, ...). Hizkera inklusibo eta errespetuzkoari erreferentzia egiten diogunean, hurrengoei erreparatzeari buruz ari gara: genero trataera, sexu-aniztasuna, kultura-aniztasuna, dibertsitate funtzionala duten pertsonak (desgaitasuna), zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboetan arreta berezia jarriko dugularik (*Ikusi gaiari buruzko erreferentzia bibliografikoak webguneko Ikasmaterial osagarria atalean*).

Datuen babeserako. Datu pertsonalik zuzenean jaso behar direnean, bereziki arrisku fisiko, psikologiko edo sozialei loturiko datuak edo datu sentiberak badira, subjektuaren baimen informatuaren prozesuari buruzko jakintzaz gainera, konfidentziasun eta datuen babeserako jarraibideak aplikatuko dira.

## 10. Zer baldintza administratibo bete behar dira?

### GRALa EGITEKO GAIEN ESLEIPENA

Bi erataria hauta daiteke GRALa egiteko gaia.

#### 1- Ikasle bakoitzak GRAL proposamen bat aurkeztea.

GRALa egin aurreko ikasturtearen bigarren seihilekoan, ikasleak bere gai proposamena egin dezake. Ikasleak zuzendaria izango den irakaslearekin adostuko du gaia.

Proposamena GAUREn bidez egingo du ikasleak (Ikusi web orrian epeak eta prozedura).

Ikasle bakoitzak proposamen bakarra egin ahal izango du.

Irakasleek ikasleen proposamenak jasoko dituzte eta onartu edo ezetsiko dituzte.

Onartutako proposamenen esleipena lotuta dago ikasleak GRALa prestatzen hasteko bete beharreko baldintzak betetzeari (ikus Bilboko Hezkuntza Fakultatearen GRALaren araudiaren 4.7. artikulua). Esleipena hortaz, uztailetik aurrera egingo da dekanotzatik, aurreko ikasturteko aktak itxi ondoren.

## **2- Fakultateak proposatutako gai bat aukeratzea**

Graduan dozentzia duten sailek proposatutako gaiekin, fakultateak GRAL gai eta tutoreen eskaintza publikatuko du. Hortik aukeratuko dute gaia, proposamenik egin ez duten ikasleek eta proposamena ezetsi zaien ikasleek.

Kasu honetan, ikasleak gai eta tutore autoesleipena egingo du automatrikula egiten duen une berean. Aurretik, gradua bukatzeko beharrezkoak diren ikasgai guztiak matrikulatuta izan beharko ditu, GRALa izan ezik. Gainontzeko ikasgaien matrikula egin ondoren, eta 168 kreditu gaindituta izanez gero, sistemak leiho berri bat irekiko du, non eskuragarri dauden gaiak agertuko diren. Ikasleak bat aukeratu eta autoesleitu egingo du.

Matrikulazio epea hasi aurretik, GRAL gai eskaintza web-orrian argitaratuko da ikasleak eskaintza aztertzeko aukera izan dezan.

Hautaketa egiteko ezarritako ordena matrikula egiteko ezartzen den berbera da (ikus, Graduko edo 1. eta 2. zikloko ikasketen gestiorako arautegia, 27.artik).

## **GRALa EGITEA**

---

GRALa burutuko den ikasturtearen hasieran, ikaslea zuzendariarekin jarriko da kontaktuan. Horrek tutoretzen egutegia edota plangintza azalduko dio. Sei tutoretza saio antolatuko dira, gutxienez.

Horrekin batera, ikasleak GRALarekin lotutako prestakuntza jarduera osagarrietan parte hartzeko aukera izango du. Ikasturtean zehar ikasleak prestakuntza proposamenen berri izango du.

## **GRALaren MATRIKULA**

---

Matrikula prozesuak ikasleak hiru urrats ematea eskatzen du, ezinbestekoak defentsara deitua izateko:

1) GRAL ikasgaia matrikulatu eta ordaindu: Gradu Amaierako Lanari dagozkion 12 kredituen matrikula GAUR bidez egin daiteke, ikasketa plana amaitzeko eskatzen diren ikasgai guztiak, GRALa izan ezik, espedientean gaindituta agertzen diren unetik aurrera.

2) Defentsa eskatu: ikasgaia matrikulatu ondoren, GAUR bitartez defentsa eskatuko da, GRALa defendatu nahi den deialdia adieraziz (otsaila, ekaina, iraila). GRALa defendatuko den hizkuntza ere aukeratuko da, eta bat etorriko da lana idazteko erabili den hizkuntzarekin.

3) Lana entregatu: Ikasleak ADDIn, EHUren artxibo digitalean, utziko du GRALaren ale bat, pdf formatoan (Ikusi ADDI Gida web orrian). Beste bide ofizial batzuetatik entregatzea ere eska liteke.

Ikasturte hasieran publikatzen den GRAL egutegian zehaztuko da deialdi bakoitzerako matrikula egiteko ezarri diren epemugak. (Ikus Egutegia web gunean).

Ikasleak defentsa eskatu ondoren, zuzendariak mezu bat jasoko du GAUR bidez, zuzendu duen GRALaren defentsa egitea eskatu dela jakinarazteko. Mezuan, GAUR sisteman bere txostena txertatzea eskatuko zaio. Txosten honetan egongo da lanaren kalifikazioa jarrita.

Ikasleak lana ADDIra igo ondoren, beste mezu bat jasoko du lana onartzeko eskatuz.

## GRALaren DEFENTSA

---

GAURetik jasoko duten mezu baten bitartez GRALaren defentsara deituko dira ikasleak. Epaimahaiaren osaketaren berri emango zaie, baita esleitutako egun eta orduaren berri ere. Mezu hau, defentsa eguna baino aste bete lehenago jasoko da.

Epaimahaiaren osaketa, defentsa eta ondorengo ebaluazioa eta kalifikazioa fakultateko GRALen araudiak ezarritakoaren arabera egingo da (ikus 6., 7. eta 8. art.).

Fakultateak ezarriko ditu eskola egutegiaren barruan, GRALaren defentsarako urteko deialdiak. Ikasleak urtean bi deialditara aurkez daitezke gehienez ere (ikus GRALen araudiaren 5.2. art.).

GRALa lehenengo deialdian gainditzin ez duen ikasleak txosten bat jasoko du epaimahaiak proposatutako zuzenketak laburbilduz, eta ikasturte berberean bigarren deialdi batera aurkeztu ahal izango da. Kasu honetan, matrikula egiteko bi pausu baino

ez ditu eman beharko, hain zuzen ere, defentsa eskatu GAURen eta lan berria igo ADDIra.

## UKO EGITEA

---

Gai eta tutore esleipenak ikasturte oso baterako izango dira, eta beste urte batez luzatu ahal izango dira, zuzendari eta ikaslea ados baldin badaude.

Ikasleak gai eta tutore esleipenari uko egin ahal izango dio, horretarako ezarritako epeetan (ikasturte bakoitzean hiru uko egiteko deialdi). Uko egiten duen unetik aurrera, hurrengo ikasturterako gai esleipen prozesuan parte hartu ahal izango du.

Irakasleak defendatu ez duen ikasle baten tutoretzari uko egiteko aukera izango du, horretarako ezarritako epean.

***Ohar garrantzitsua: Informazioa eta prozeduran egiten diren oharra eta deialdiak ikaslearen posta korporatiboaren bidez (ikasle.ehu.es), GAUR-eko oharren bidez eta WEB-orriaren bidez egingo dira. Garrantzitsua da hiru komunikazio bide horiek sarritan begiratzea.***

..... **HEZKUNTZAKO GRADUA**

**20.../20... ikasturtea**

**LANAREN IZENBURUA**

**Egilea:**

**Zuzendaria:**

**Leioan, 20...(e)ko .....aren ....(e)(a)n**

## 2. ERANSKINA

### GRADU AMAIERAKO LANEN ZUZENDARIAREN TXOSTENA

GRALaren izenburua:	
Ikaslea:	
Zuzendaria:	Data:
Gradua:    Giz. <input type="radio"/> zkuntza    Haur Hezkuntza <input type="radio"/> Lehen Hezkuntza <input type="radio"/>	
Modalitatea: <input type="radio"/> Orketa/arakatze sistematikoa    Esku-hartzea <input type="radio"/> Sormena/berrikuntza <input type="radio"/> Ekintzaitza <input type="radio"/>	

	Ebaluatutako alderdiak	A	B	C	D
1	Gaiaren definizio eta planteamendua egokiak dira, eta Graduarekin lotuta daude.				
2	Gaiaren inguruan egindako berrikuste teorikoa egokia da.				
3	Iturri dokumentalak eta bibliografia gaiarekin bat datoz. Ondo aipatuta daude.				
4	Metodologia koherentea da planteatutako helburuekin.				
5	Hizketa ondo egituratuta eta argudiatuta dago.				
6	Idazkerak txantiloian adierazitako jarraibideak errespetatzen ditu.				
7	Testua prosa akademikoarekin bat dator, akats ortografiko edo tipografikorik gabe. (GRALa GAINDITZEKO EZINBESTEKO BALDINTZA DA)				
8	Ahoz modu argi eta zehatzean mintzatu da prozesu osoan zehar.				
9	Bizitasunez eta sakon lan egin du prozesu osoan zehar.				
10	Tutoretza-orduetara joan eta parte hartu du, eskatutako zeregina epe barruan entregatuz.				
11	Bere GRALaren planteamendu eta lanketan autonomia erakutsi du.				

A: Oso egokia (Bikain: 9-10); B: Egokia (Oso ongi: 7-8); C: Oinarrikoa (Nahikoa: 5-6); Desegokia (Gutxi: 0-4)

Oharrak:
----------

Kalifikazioa (10etik)

--

Leioan, 20.....ko ..... ren.....a



## ZUZENDARIARENTZAKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

### 3. ERANSKINA

Gai da:		Ikasitakoaren emaitzak (I.E.)	A	B	C	D
<b>HASIERAKO FASEA</b>	Lana bideratuko duten galderak egiteko edota helburuak zehazteko.	<b>Galdera eta helburu sorta funtzionala zehaztu du, lana egoki egituratu eta bideratzeko asmoz.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Galdera eta helburu sorta zehaztu du.</li> <li>Galdera eta helburuen arteko lotura ezarri du.</li> <li>Lana egituratu eta bideratu du eginiko galderen eta ezarritako helburuen arabera.</li> </ul>				
	GALaren esparru teorikoa sortzeko funtsezko iturriak erabiltzeko.	<b>Gaiari buruzko dokumentazioa identifikatu du eta koherentziak erlazionatu du GALean ezarritako helburuekin.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gaiaren gako hitz egokiak identifikatu ditu.</li> <li>Informazioaren bilaketa lanean iturri esanguratsuak bildu ditu.</li> <li>Iturri dokumental egokiak aukeratu ditu gaiaren esparru teorikoa sortzeko.</li> <li>Aipamenak egiten ditu APA arauak erabiliz.</li> </ul>				
	GALaren funtsezko elementuak identifikatzeko.	<b>Lanaren egitura zehaztasunez deskribatu du eta bere elementuak edukiz bete ditu.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gaia eta gaiaren testuingurua lotu ditu.</li> <li>Lanaren egitura zehaztu du GALen modalitateen arabera (ikerketa/arakatze sistematikoa, esku-hartzea, sormena/berrikuntza eta ekintzailletza).</li> <li>Edukiz bete du honako atal bakoitza: helburuak, baliabideak, metodologia, informazioaren analisia.</li> </ul>				
<b>DISEINUA ETA PLANGINTZA</b>	Lanaren funtsezko elementuak antolatzeko.	<b>Lanaren antolaketa argi eta garbi adierazi du.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Lanaren egitura orokorra arrazoitu du.</li> <li>Lana burutzeko prozedura diseinatu du.</li> <li>Erabili beharreko baliabideak zehaztu ditu, helburuak kontuan hartuta.</li> </ul>				
	GALaren gauzatze faseen iraupena zehazteko.	<b>Denbora behar bezala kudeatu du, benetako aukerak eta eskakizun ofizialak kontuan hartuz.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Kronograma egin du lanaren funtsezko faseak adieraziz.</li> <li>Egutegia zuzendariarekin adostu du, ikastegiak zehaztutako datak kontuan hartuz.</li> </ul>				
	Garapen txostena aurkeztu eta zuzendari eta ikaskideen aurrean defendatzeko.	<b>Lanaren garrantzia koherentziak arrazoitu du eta prozesua irmoki defendatu du.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gaiaren garrantzia edo adierazgarritasuna arrazoitu du.</li> <li>Lanaren funtsezko elementuak aurkeztu ditu.</li> <li>Lanaren garapen prozesuaren barne koherentzia adierazi du.</li> <li>Faseen eta kronogramaren artean lotura ezarri du.</li> <li>Metodologia eta erabiliko dituen baliabideak aukeratu ditu.</li> <li>Izandako arazoak edo mugak azaldu ditu eta baita haien konponbidea ere.</li> </ul>				
<b>GARAPENA</b>	Ezagutza erabiliz esparru teorikoa sortzeko.	<b>Bildutako informazioa oinarri hartuta, esparru teorikoa sortu du.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Aurrez bildutako informazioa oinarri hartuta sortu du esparru teorikoa, eta bere lana horren arabera bideratu du.</li> <li>Lana esparru teorikoan edo detektatutako beharrezkoen testuinguruan kokatu du.</li> <li>Lana bideratu du berak aukera duen modalitatearen arabera (ikerketa/arakatze sistematikoa, esku-hartzea, sormena/berrikuntza eta ekintzailletza).</li> </ul>				
	Lortutako datuak biltzeko, aztertze eta interpretatzeko.	<b>Bildutako informazioa sistematikoki eta zehaztasunez aztertu eta interpretatu du eta planteamendu teoriko edo empirikoetan oinarritutako ondorioak atera ditu.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Lana burutu du (edo gaiari dagokiona).</li> <li>Emaitzak aztertu ditu.</li> <li>Aztertutako emaitzetan oinarrituz ondorioak atera ditu.</li> <li>Gai honetan jarripenaren prospektiba zehaztu du.</li> </ul>				
<b>BALORAZIOA, HOBERUNTZA ETA PROSPEKTIBA</b>	Idatziz eta ahoz ideiak argi eta garbi adierazteko, arlo zientifikoaren hizkera erabiliz.	<b>Ongi amaitu du GALaren azken txostenaren idazketa, eta arlo zientifikoaren hizkuntza espezializatua egoki erabili du.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>GALaren idazketa amaitu du, eta prosa akademikoaren formazko eta egiturazko oinarriko irizpideak errespetatu ditu.</li> <li>Lana ahoz aurkeztu du, eta ondo egituratu du.</li> <li>Adimen etikoa eta sistematiziorako gaitasuna duela adierazi du, baita analisi kritikoa egiteko eta sintesirako gaitasuna ere.</li> </ul>				
	Lortutako ezagutzaren eta prozesu osoaren kontzientzia hartzeko.	<b>Lortutako ezagutzaz eta jarraitutako prozesuaz kontzientzia hartu du.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Prozesuan zehar hausnarketa propioak eta besteengandik jasotakoak bere lanean sartu ditu.</li> <li>Autoebaluzioa egin du GALa egiterakoan antzemandako indargune eta ahulguneekin.</li> </ul>				
	Ezagutza berriak sortu eta prospektibak egiteko.	<b>Bere ekarpenak zehaztu ditu eta hobekuntzak edo jarraitzeko ildoak ezarri ditu.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Txostenean jaso ditu lanean lortu diren eta oraindik lortzeke dauden helburuak.</li> <li>Etorkizunean lan horrekin segitzeko ezarri behar diren liratekeen oinarriko ardatzak ezarri ditu.</li> </ul>				

[Taula egokitua honako honetatik: AQU, 2012, p. 35-75].

Ikasitakoaren emaitzen maila (erabili hizki ala zenbakia):

**A:** Oso egokia (Bikain: 9-10); **B:** Egokia (Oso ongi: 7-8); **C:** Oinarrikoa (Nahikoa: 5-6); **D:** Desegokia (Gutxi: 0-4)

## GRALaren EPAIMAHAIARENTZAKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

## 4. ERANSKINA

	Haur eta Lehen Hezkuntza Graduak	Gizarte Hezitzaile Gradua	ADIERAZLEA	ADIERAZLEAREN AZALPENA	A	B	C	D
<b>Ahozko defentsa</b>	% 75	% 80	Emaitzen eta ondorioen aurkezpena.	Justifikazioa, helburuak, metodologia eta lortutako emaitzak modu ordenatuan <b>azaldu eta interpretatzen ditu</b> , daukan denbora atal bakoitzari eman zaion garrantziaren arabera erabiliz eta modu egokian justifikatuz. GRALen egindako ekarpenak modu logiko, sintetiko eta ordenatuan <b>argudiatzen ditu</b> . Landu gabeko elementuak eta egindako lanaren balizko hedapenak zehazten ditu.				
			Hizkuntzaren erabilpena	Lanaren izaera akademikora egokitutako estiloa <b>erabiltzen du</b> . Edukiak azaltzeko modua argia eta zehatza da, eta erabilitako hiztegia egokia.				
			Aurkezpenaren kalitatea	Aurkezpenean elementu egokiak eta sortzaileak <b>erabiltzen ditu</b> , entzulearen arreta lortzen dutenak eta ulertzen laguntzen diotenak.				
			Ahozko eta ez-ahozko komunikazio trebetasunak	Mezua <b>indartzen du</b> eta entzuleen arreta gordetzea lortzen du, modu oso eraginkorrean erabiliz ahozko eta keinu bidezko komunikazio teknikak: entzulei begiratzen die, bolumen egokia erabiltzen du, tonua modulatu du, ahozko mezua keinuen bitartez indartzen du, diskurtsoan ez du hitz betegarririk erabiltzen, eta abar.				
			Epaimahaiko kideen galderari erantzuna.	<b>Harkorra da</b> eta interesa azaltzen du jasotako iritziengatik, arretaz entzuten ditu. Egiten zaizkion galderari logikaz, trebetasunez eta zentzuz erantzuten die.				
<b>Txostena</b>	% 25	% 20	Justifikazioa	Bere lanak gizararen eta hezkuntzaren errealitateari erantzuten diola <b>justifikatzen du</b> . Originaltasuna eta gaiaren gaurkotasuna				
			Argudiatzea	Ezagupen eta ebidentzia zientifikoz <b>argudiatzen du</b> , bere diskurtsoaren logika garbi erakutsiz.				
			Intentsitatea / Sakontasuna	Lanean intentsitatea/sakontasuna <b>erakusten ditu</b> , eta hori frogatu daiteke berari lotutako lanengatik, erabilitako bitartekoengatik, aztertutako bibliografiagatik, eta abar.				
			Idatzizko adierazpena (zuzentasuna, jarioakortasuna, lexikoa...)	Idatzizko adierazpen arauen ulermen egokia <b>erakusten du</b> (Gramatika, ortografia eta abar). Hizkera formala da eta testuinguru akademikora eta gaira egokitua. Idazkera aberatsa da, baina zehatza. (GRALA GAINDITZEKO EZINBESTEKO BALDINTZA DA)				
			Erreferentziak eta zitak	Informazio iturriak modu egokian <b>erabiltzen ditu</b> eta erreferentziak ondo aipatuta daude.				

**A:** Oso egokia (**Bikaina: 9-10**); **B:** Egokia (**Oso ongi: 7-8**); **C:** Oinarrikoa: (**Nahikoa: 5-6**); **D:** Desegokia (**Gutxi: 0-4**)

Epaimahaiaren notak (azalpenarena nahiz ahozko defentsarena, eta idatzizko lanaren balorazioa) GRALen azken notaren % 50 suposatzen du. Gainerako % 50 Zuzendariari dagokio. Gizarte Hezitzaile Graduan, berriz, bakoitzari %50a dagokio.